

Liburutegia lekualdatzeko txostena egingo dute Gernikan

GERNIKA-LUMO. Herriko hainbat elkarte kulturalak osatzen duten Kultura Batzordeak 'udal liburutegiak daukan espazio arazoari konponbide bat aurkitzeko' txosten teknikoa egingo duela aurreratu du. 'Bertan, liburutegiarentzako irtenbide zehatz bat proposatzea da helburua, Kultur Batzordearen iritzia araberaren eta arlo teknikoan oinarrituta', gaineratu dute. Txostena amaitzean, ebazpena Gernika-Lumoko Kultura Komisioan aurkeztuko dutela iragarri dute.

Iragan den hileko osoko bilkuran haur liburutegia lekuz aldatzearen inguruko mozioa mahai gainean uzteko erabakia hartu bazen ere, 'erabakitakoari buruz balorazio positiboa' egin berri du Kultura Batzordeak.

Baina, 'orain pausuak ematen hastearen beharra' ere badela azpimarratu dute. Bada, 'liburutegia bere osotasunean lekualdatu beharko litzatekeela' iritzita, 'aurretik azterketa sakon bat egin beharko litzatekeela' izango da Kultura Batzordearen eskakizunetako beste bat. Azkenik, Pasealekuko eskoletan kokatuta dagoen txiki parka kudeatzeko kontratua 'beste lau urtean ez luzatzea ere' proposatu dute, jakinarazi dutenez.